2022/2023 JARDUERA-PROGRAMA

# Trebiñuko Enklabea



## Elkarrekin eraiki

Arabako emakumeon berdintasunerako eta jabekuntzarako eskola

laia.araba.eus

araba álava

Laia

# LAIAeskola Trebiñuko Enklabea

## Informazioa eta kontaktua:

Trebiñuko Konderriko Udala:

945 36 00 18

María Díez de Ure Plaza 1. 09215 Trebiñuko Konderria

Argantzungo Udala:

945 37 30 06

Plaza Nagusia, 2. 09294 Argantzun

Kolaboratzailea: Trebiñuko CEAS Miranda Rural-C.
(Burgoseko Probintzi Diputazioa)

## Informazioa, kontaktua eta izen-emateak:

ceas11ac1@diputaciondeburgos.es

igualdadtrevino@gmail.com

**Inskripzioa daukaten jardueren izen-emate epea:** ikastaroa hasi baino hiru egun lehenagora arte.

**Haurtzaindegi eta garraio zerbitzua:** ikastaroa hasi baino hiru egun lehenagora arte.

**Gure buletin digitalean izena eman laia.araba.eus bidez**

Aurrez aurreko jarduerak **COVID-19**aren aurkako jarduera -protokoloak gomendatutako prebentzio-, segurtasun- eta higiene-neurriak betez egingo dira beti.

@LaiaAraba @LaiaAraba @LaiaAraba laia.araba.eus

**#LAIAeskolaTreviño**

AYUNTAMIENTO DEL CONDADO DE TREVIÑO
TREBIÑUKO KONDERRIKO UDALA

Municipio de La Puebla de Arganzón
Argantzungo Udala

C.E.A.S. Centros de Acción Social

Edukien elaborazioa: Trebiñuko Udaleko Berdintasun Zerbitzua
LAIAeskolako Idazkaritza teknikoa: Berdintasun Proiektuak, S. Coop www.berdintasun.org
Sormen zuzendaritza: Equiliqua & Avocado / equiliqua.net
Maketazioa: La Debacle www.ladebacle.com
Inprimatzailea: Arabako Foru Aldundia
L.G.: LG G 628-2022

# Aurkibidea


| | |
|---|---|
| Trebiñuren ongi etorria | **5** |
| Jaietan eraso sexistarik EZ | **6** |
| Erakusketa: Sexu-orientazio eta genero-identitateagatiko gorroto delituak ikuspegi globaletik | **7** |
| “Ordu bioleta” irakurle-klub feminista gaztelaniaz | **8** |
| Lantegia: *Low pressure fitness*, emakumeentzat ahalduntze tresna | **9** |
| Gizonentzako lantegiak: Maskulinitate berriak | **10** |
| Lantegia: emakumeen jakintza eta zaporeak sarean | **11** |
| Lantegia: “Nire edertasuna marrazten” | **12** |
| Lantegia: Hip hop eta Showcase + Dj Ibai | **13** |
| Antzerkia: “Tula Varona” | **14** |
| Ez itzazu galdu prestatzen ari garen gainontzeko ekintzak eta elkarteek antolaturiko jarduerak! | **15** |


AIARA
GORBEIALDEA
ARABAKO LAUTADA
VITORIA-GASTEIZ
AÑANA
TREBIÑU
ARABAKO MENDIALDEA
GUARDIA-ARABAKO ERRIOXA


LA PUEBLA DE ARGANZÓN
ARGANTZUN
CONDADO DE TREVIÑO
TREBIÑUKO KONDERRIA

# Trebiñuren ongi etorria

Laugarren edizio honetan, Laia 2022-2023 egitarauak indartu egin du Trebiñu Konderriko eta Argantzungo udalerrien errealitateari egokitutako berdintasun politika egonkorrak garatu eta finkatzeko helburua.

Horren erakusgarri da Trebiñuko Enklabearen Berdintasunerako I. Plana onartu berri izana, 2022-25 aldirako. Datozen urteetan Enklabean jendarte justuagoa, berdinzaleagoa eta indarkeriarik gabekoa lortzeko bide-orria da, eta, halaber, berdintasunarekiko hausnarketari eta konpromisoari lotutako proposamen eta jarduerak planteatzeko esparrua da.

Izan ere, urte nahasi hauetan zerbait ikasi badugu, krisialdiek bereziki emakumeak kolpatzen dituztela izan da; beraz, funtsezkoa da, inoiz baino beharrezkoagoa, emakumeak eta neskatoak ahalduntzeko topaguneak eta tresnak eskaintzeko jarduerekin jarraitzea. Hori dela eta, mantendu egingo dira urtean behin egiten diren Irakurketa Klub Feminista bezalako jarduerak, eta bestalde, tailer berriak planteatzen dira urtean zehar, Enklabeko emakumeei konfiantza eta autoestimua areagotzeko aukeraz gain, jakintzak partekatzeko eta denboran eta espazioan ikusaraziko dituzten harremanak ehuntzeko aukera emango dietenak, baita parte hartze publiko handiagoa izatera animatzeko ere.

Baina adin eta jatorri guztietako emakumeentzat prestatutako jarduerez gain, gizonek, gazteek eta, oro har, herritarrek ere beren espazioak izango dituzte, modu ludiko batean berdintasunean oinarritutako, indarkeriarik gabeko eta aniztasunarekiko errespetuzko jendartean elkarrekin eta konpromisoz aurrera egiteaz hausnartzeko eta eztabaidatzeko.

Pertsona orori zabaldutako eskolaren ikuspegi honekin, parte hartzera animatzen zaituztegu. Egon adi udalaren eta LAIAren webguneei, whatsapp instituzionalari eta datozen hilabeteetan posta elektronikoz helaraziko dizkizuegun kartelei, aipatutako jardueren eta prestatzen ari garen beste batzuen informazioarekin.

Elkar ikusiko dugulakoan


SATEVI
900 840 111
LARRIALDIAK
112
SERVICIO MUNICIPAL
URGENCIAS SOCIALES
945 134 444
JAIETAN
ERASO
SEXISTARIK
EZ/NO
A LAS
AGRESIONES
SEXISTAS
EN FIESTAS
araba álava
Laia
laia.araba.eus

# Erakusketa: Sexu-orientazio eta genero-identitateagatiko gorroto delituak ikuspegi globaletik



Erakusketa honen helburua da sexu-orientazio eta genero-identitateagatiko gorroto delituen egoera ikusaraztea, horrela analisi kritikoa eta herritarren mobilizazioa sustatzeko delitu horiek salatzeari eta LGTBI eskubideen sustapenari dagokienez.

Gorroto delituen egoera hiru mailatan islatu nahi izan da —bertakoa (Euskadi), nazionala (Espainiako Estatua) eta Erdialdeko Amerika eta Mexikokoa—, horri esker herrialde bakoitzeko egoera zehatza aztertzeko, eta, aldi berean, elementuak eskaintzen dizkigulako gorroto delituen egiturazko kausak identifikatzeko, baita politika globalek delitu horiek ugaritzean duten inpaktua ere.

| | | |
|---|---|---|
| **Dinamizazioa:** | **Aldarte**, gay, lesbiana eta transen arretarako zentroa | |
| **Data, tokia, ordua:** | **Arabako Lautada**<br>Zabalarte Aretoa, Agurain | **Irailaren 12tik 18ra, 2022**<br>10:00-18:00 |
| | **Gorbeialdea**<br>Kultur etxea, Urkabustaiz | **Irailaren 26tik urriaren 2ra, 2022**<br>17:00-20:00 |
| | **Añana**<br>Udaletxeko plazako bolatokia, Pobes | **Urriaren 3tik 9ra, 2022**<br>9:00-14:00 |
| | **Mendialdea**<br>(tokia zehazteke) | **Urriaren 10etik 16ra, 2022** |
| | **Trebiñu**<br>Ihuda Ibaia zentroa, Trebiñu | **Urriaren 17tik 23ra, 2022** |
| | **Arabako Errioxa**<br>Oyón-Oiongo Bazterra aretoa | **Urriaren 24tik 30ra, 2022** |
| | **Aiaraldea**<br>Laudioko Kultur etxeko erakusketa aretoa | **Azaroaren 4tik 11ra, 2022** |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat | |
| **Hizkuntza:** | Ele bietan | |
| **Antolatzaileak - kolaboratzaileak:** | Arabako Kuadrillak eta Udalak / Aldarte / Arabako Foru Aldundia | |
| **Informazio + :** | igualdadtrevino@gmail.com<br>ceas11ac1@diputaciondeburgos.es / 945 36 00 18<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez | |

# “Ordu bioleta” irakurle-klub feminista gaztelaniaz



Irakurle-Klub Feminista topaketa, hausnarketa eta eztabaidarako espazio bat da, non adin, formakuntza, maila, lanbide, bizimodu... ezberdinetako emakumeak batzen garen feminismoaz hitz egiteko. Eleberriak, saiakerak, iritzi artikuluak, poesia... irakurriko dugu eta liburuetako edukiari buruzko norberaren iritzia besteenarekin osatuko dugu.

Esperientziak partekatzeko eta feminismoaz ikasteko baliagarria ere izango zaigu. Klub hau jabekuntzarako eta norbera aberasteko benetako espazioa da guretzat. Eta are gehiago, ondo baino hobeto pasatzen dugu.

| | |
|---|---|
| **Koordinatzailea:** | **Begoña Etayo**, genero berdintasunean eta garapenerako lankidetzan aditua. Maria de Maeztu Forum Feministako kidea |
| **Data eta ordua:** | Aurkezpena:<br>**Urriak 21, 2022**<br>Ostirala, 17:45-19:45<br>**Hileko hirugarren ostiraletan ordu berean** |
| **Tokia:** | Ihuda Ibaia zentroa, Trebiñu |
| **Norentzat:** | Emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak-kolaboratzaileak:** | Arabako Foru Aldundia<br>Trebiñuko Konderriko Udala<br>Argantzungo Udala |
| **Informazio + inskripzioak:** | igualdadtrevino@gmail.com<br>ceas11ac1@diputaciondeburgos.es<br>945 36 00 18 / 945 37 30 06<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Lantegia: *Low pressure fitness*, emakumeentzat ahalduntze tresna



“Gutxitu ezazu presioa ongizatea handitzeko” lelopean, presio baxuko gimnasia mota hau arnasketan, jarreran eta gorputz-kontzientzian oinarritutako ariketa eta errutinetan oinarritzen da. Horrek eragin zuzena du pertsonen ongizatean eta autoestimuan, konfiantzan eta segurtasunean, eta, zehazki, emakumeengan. Elkarrekin magia gara!

**Dinamizazioa:** **Ananda Abaigar**, naturopata, yoga irakaslea eta LPFn trebatua. Genero des-eraikuntzan prestakuntza zabala du, eta hainbat emakume taldetan ahalduntze feminista eta hazkunde pertsonal eta kolektiboan laguntzen du

**Datak eta ordua:** **Irailak 12, 19, 26 eta urriak 3, 2022**
Astelehena, 17:30-19:30

**Tokia:** Ihuda Ibaia zentroa, Trebiñu

**Norentzat:** Emakumeentzat

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Antolatzaileak-kolaboratzaileak:** Trebiñuko Konderriko Udala
Arabako Foru Aldundia

**Informazio + inskripzioak:** igualdadtrevino@gmail.com
ceas11ac1@diputaciondeburgos.es
945 36 00 18 / 945 37 30 06

Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez

# Gizonentzako lantegiak: Maskulinitate berriak



Gizonentzako sentsibilizazio lantegiekin jarraitzen dugu Konderrian. Patriarkatuak ezartzen dituen maskulinitate baldintzen eraikuntzak gizonen jarrerengan eragiten dituzten kausak eta ondorioak ezagutzen ikasiko dugu, rol horietatik irten eta eragile gisa urratsak emateko. Gainera, gizon izateko eredu berri bat eraikitzea du helburu, maitasunean, zaintzan, errespetuan eta lankidetzan oinarritua.

| | |
|---|---|
| **Koordinazioa:** | **ON:GIZ Elkartea**, sistema patriarkalaren suntsiketan eta berdintasunaren aldeko prozesuetan gizonen parte-hartze zuzena sustatzea helburu duen elkartea |
| **Datak eta ordua:** | **Irailak 30 eta azaroak 18, 2022**<br>Ostirala, 17:30-20:30 |
| **Tokia:** | Zentro soziala, Doroño |
| **Norentzat:** | Gizonentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak-kolaboratzaileak:** | Trebiñuko Konderriko Udala<br>Doroñoko Batzordea<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + inskripzioak:** | igualdadtrevino@gmail.com<br>ceas11ac1@diputaciondeburgos.es<br>945 36 00 18 / 945 37 30 06<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Lantegia: emakumeen jakintza eta zaporeak sarean



Lantegi hau gure aitzindarien zapore eta jakintzak berreskuratzean datza. Horretarako, gainontzeko emakumeekin jakituria hauek elkarbanatu nahi dituzten konderriko emakumeak giltzarri dira, izan ere, era honetan, sukaldaritzako genealogia bat marraztea ahalbidetzen da, bizitzako historiak aztertzeko eta belaunaldien artean balioesteko. Zapore eta jakiturien atzean zientzia, sen, ahizpatasun, elkarrenganako babes, zaintza edota errekurtsoen kudeaketa zentzudun asko dagoelako, argitara atera behar den ondare oso bat, ikusarazten ikasiko dena ere.

| | |
|---|---|
| **Trebatzailea:** | **Mentxu Ramilo Araujo**, Zientzia Politikoetan eta Administrazioan doktorea UPV/EHUn. Wikimedia España (WMES) elkarteko lehendakariordea |
| **Datak eta ordua:** | **Irailak 30, urriak 7, 14 eta 28, 2022**<br>Ostirala, 17:00-19:30 |
| **Tokia:** | Ihuda Ibaia zentroa, Trebiñu |
| **Norentzat:** | Emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak-kolaboratzaileak:** | Trebiñuko Konderriko Udala<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + inskripzioak:** | igualdadtrevino@gmail.com<br>ceas11ac1@diputaciondeburgos.es<br>945 36 00 18 / 945 37 30 06<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Lantegia: “Nire edertasuna marrazten”



Emakumeoi haurtzarotik etengabe geure burua aztertzea exigitzen zaigu, garen hori berrikustea, egiten dugun guztia gainbegiratzea, besteon aurrean gure izaera zein den berraztertzea, eta, batez ere, gizonen aurrean nolakoak garen begiratzea. Gure kontzientzia eta gure begirada ordezkatzen ditu besteongandik estimatua izatearen zentzuak. Lantegi honetan marrazkia erabiliko dugu etengabeko gainbegiraketak, inposaketak eta epaiketak hausteko tresna gisa. Gainera, artearen eta kulturaren historian zehar ezarritako edertasun-kanonei buruz hausnartuko dugu, gure auto-irudian izan duten eragina aztertzeko. Ez da marrazketari buruzko aurretiazko ezagutzarik behar.

| | |
|---|---|
| **Dinamizazioa:** | **Lempicka y Asociadas**, feminismoa eta artearen sorkuntzarako ikerketa eta trebakuntza gunea |
| **Data eta ordua:** | **Azaroa, 2022**<br>(Data eta ordua zehazteke) |
| **Tokia:** | Ihuda Ibaia zentroa, Trebiñu |
| **Norentzat:** | Emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak-kolaboratzaileak:** | Trebiñuko Konderriko Udala<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + inskripzioak:** | igualdadtrevino@gmail.com<br>ceas11ac1@diputaciondeburgos.es<br>945 36 00 18 / 945 37 30 06<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Lantegia: Hip hop eta Showcase + Dj Ibai



Euskal Herriko rap eta hip hoparen irudi ikonikoa den La Basurekin gure sentimenduak eta aldarrikapenak musikaren bidez transmititzen ikasiko dugu lantegi honetan. Hip hoparen kulturaren elementuak modu ludiko eta parte-hartzailean ezagutuko ditugu, estereotipoak baztertuz eta musikaren munduan emakumeen papera sustatuz. Erabateko luxua!

| | |
|---|---|
| **Dinamizazioa:** | **La Basu**, 90eko hamarkadan emakume raperoz osaturiko lehen taldea sortu zuen Euskal Herrian. 2015etik hip hopean emakume artistei ikusgarritasuna eta ahotsa ematen dien Bilboko jaialdiaren antolatzailea |
| **Data eta ordua:** | **Azaroa, 2022**<br>(Data eta ordua zehazteke) |
| **Tokia:** | Ihuda Ibaia zentroa,Trebiñu |
| **Norentzat:** | Gazte eta nerabeentzat |
| **Hizkuntza:** | Ele bietan |
| **Antolatzaileak-kolaboratzaileak:** | Trebiñuko Konderriko Udala<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + inskripzioak:** | igualdadtrevino@gmail.com<br>ceas11ac1@diputaciondeburgos.es<br>945 36 00 18 / 945 37 30 06<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Antzerkia: “Tula Varona”




Ipuin espainiar, istorio zital eta Valle Inclánen emakumeen bildumatik, klasikoa den antzerki hau berreskuratzen da, eta, gainera, musikaz eta narrazioz nazioarteko idazlerik modernistenetako baten testua mamituko da. Emakume maitakor eta gogaikarria, gainontzekoek zer pentsatzen dutenari ezta gauari ere beldurrik ez diona, emakume indartsu eta lotsagabea, ederra, izugarrizko feminitatearekin, gaztea, eta bere maitaleak nahi duen bezala mugiarazteko gai dena. Urteetan aurrera egin ahala, emakume guztiok ateratzen dugu gure alderdirik gaiztoena.

**Antzezlea:** **Brama Teatro**, bere proposamenen ildo estilistikoak orroak emulatzen ditu, adierazteko beharrizan gisa agertuz, artifiziorik gabe. Cristina Izo protagonista *Colectivo de Mujeres Creadoras*-eko partaidea da

**Data eta ordua:** **Azaroak 4, 2022**
Ostirala, 19:30

**Tokia:** Ihuda Ibaia zentroa, Trebiñu

**Norentzat:** Herritarrentzat

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Antolatzaileak-kolaboratzaileak:** Trebiñuko Konderriko Udala
Arabako Foru Aldundia

**Informazio + inskripzioak:** igualdadtrevino@gmail.com
ceas11ac1@diputaciondeburgos.es
945 36 00 18 / 945 37 30 06

Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez

# Ez itzazu galdu prestatzen ari garen gainontzeko ekintzak eta elkarteek antolaturiko jarduerak!

Urtean zehar LAIAeskolan ekintzak antolatzen dituzten elkarte gehiago dago. LAIA-ko web orrialdean, sare sozialetan, buletin digitaletan eta Kuadrillen ohiko komunikabideetan iragarri egingo dira.

Trebiñuko enklabean hau nabarmentzen dugu:

| | |
|---|---|
| **AMPEA, Arabako Emakume Profesional eta Enpresarien Elkartea** | Arabako emakume sortzaile, zuzendari eta profesionalen inguruko ikerketa, "ekiten ikasten" dibulgazio jardunaldiak, ... |
| **Samurrak aniztasun sustapen elkartea** | Sexu, genero eta kultur aniztasuna jorratzen duten tailerrak eskainiko dira Arabako ikastetxe eta elkarteei |
| **Eginaren Eginez** | "Tacha todas las palabras tóxicas" kanpaia birtuala |

AMPEA Samurrak Aniztasuna eginez

# OHARRAK